



Izenburua: **Funanbulistaren beldurra**

Egilea: **Karlos Gorrindo**

Saila: Narratiba, 123

ISBN: 978-84-9109-585-9

Salneurria: 19 € (BEZ barne)

Orriak: 320

Koadernaketa: rustika – 150 x 220

Helduen literatura

Erein argitaletxea

Donostia, 2020ko ekainak 3

Liburuaren gaineko definizioa: Testigantza liburu bat. Kartzela kronika bat. Autobiografia nobelatua. Literatura. Liburu multimedia.... Eta haserre nago Inaziorekin, liburuan agertzen diren abestiekin Cd bat erantsi ez diolako, kapitulu bat irakurtzen hasi aurretik abestia entzutea gomendatuz.

Sortze prozesua: Emakumea haurdun geratu eta aitagaiak hartzen duen ilusioarekin erabaki nuen liburu hau idaztea, urteetan buruan jira eta bira izan ostean. Denbora piloa pasatu behar izan da idazteko deliberoa hartu arte. Distantziak objektiboagoa izateko aukera ematen duelako edo iragan konbultsoak nire memorian pausatzeko eta atsedean hartzeko une egokienaren zain egon naizelako. Haurdunaldi ederra eta lasaia barik, nahiko estresantea izan dela esan behar. Haurdunaldia barik, gaixoaldia izan dela esan ahal dut. Ez dut gomitu larririk izan, ez dut botaka egin, ezta malaganarik sentitu ere, bihotzerrerik eta horrelakorik. Baina liburuak idatzi ahala, alaitasuna, poza, tristura, negar egiteko gogoia, amorrua, herra... sentimendu eta emozio piloa batu zait idatz bidean. Ez da erditze erraza izan, kostata atera da umea kalera, forcepsak erabili behar izan ditugu.

Pentsamendu eta filosofia baten bilakaera: Hauxe da liburuak bere baitan dakarrena. Bilakaera pertsonal eta humanoa, bilakaera politikoa. Baina ez, ostera, bilakaera ideologikoa. Testuinguruak garrantzi handia du bilakaera horretan. Nitasunetik gutasunera dagoen jauzia hasieran eta gutasunetik, berriro, nitasunera. Nor garen eta zer garen baldintzatuta egoten dira. Ortega y Gassetek esan bezala. "Gu geu gara eta, halaber, inguratzen gaituzten zirkunstantziak". Horrela soilik emango zaio esan eta egiten duzunari dimentsio eta ulergarritasun handiagoa. Ekintza bat berez eta bere horretan, ona edo txarra izan daiteke, goratzekoa edo gorrotatzekoa. Baina definizio horiek erabat alda daitezke testuinguru jakin bat ematen bazaie. Edo ez. Hirurogeita hamarreko azkenaldeko eta laurogeiko hamarkadako konbultsio politikoa testuinguratzen ez badugu, errealitatea distorsionatuta agertuko litzaiguke begietara, eta giro hura salbajadatzat ulertuko lukete askok. Behar bezala testuinguratuta: Franco diktadorearen azken fusilatzeak.

Franco hil, frankismoaren jarraipen maskaratua, demokrazia tutelatua, gure herriaren askatasun egarria. Txiki Benegas Autodeterminazioa goiburu zuen pankartaren atzean Bilboko manifestazio batean, ETAren jarduera armatuak gizartearen eraldaketa ekarriko zuen sinesmena... Hori guztia kontua hartuta eta testuinguratuta ulertzen da erabilera armatuaren gorakada eta gazte jendeak bide hori aukeratzeko hartutako erabakia.

Egiaren definizioa: Egia definitzea ez da erraza izaten. Agian norberak bizi izaten duen esperientzia bitalaren kontzientzia izatea eta hori azaltzea da egiaren definiziotik hurbilen dagoena. Hortaz, egia bat baino gehiago dago: zenbat buru hainbat aburu. Baten bati irakurri diot egia ez dela existitzen, soilik fikzioaren bidez azaldu daitekeela. Errealitatearekin ere beste hainbeste esan dezakegu. Ez dela existitzen, alegia, norberak bizi izaten ez duen bitartean. Nik liburu honetan neure esperientzia bitala kontatu dut eta oso kontzientea naiz bizi izandakoaz. Neure errealitate partekatua bizi izan nuen, neure egia partekatua, maskaratu barik, ezer gehitu edo kendu barik.

Esku bi erabili ditut liburu hau idazteko. Atxagak esan zuen hau. Bi erabili zituela: memoria eta irudimena. Eta neuk ere esku bi erabili ditut, horrexek biak hain zuzen ere. Memoria izan da gidari, akuilu, bide. Baina memoriak huts egiten duenean edo testuaren argudioari kalterik egiten ez dionean, irudimena erabili dut oroimenaren hutsarteak betetzeko, janzteko edo lotuneak sortzeko. Asmaziorik ez da nobela honetan, bestalde. Nik bizi izandako errealitatetik, nire egiatik sortutako testua da.

Karlos Gorrindo
Gernika, 2020ko ekainak 3



Karlos Gorrindo Etxeandia (Gernika, 1958).

Ofizios Euskara Teknikaria, ikasketaz kazetari eta afizios idazle. Hainbat lan argitaratu ditu dagoeneko. Kartzelan zegoela (1980-1996) eman zion hasiera ibilbide literarioari:

Apollinaireren Neskazale gazte baten balentriak (1988) eta *Jack Landonen Pirataren ibilaldia* (1991) euskaratu zituen. *Ni naizen hori* (1992), *Amaren begietan* (1995), helduentzako nobelak eta *Trostan, hagan zein narrazean* (1994) haur kontakizuna argiratu zituen.

Behin kartzelatik kanpo, haur eta gazte literaturan, hainbat liburu argitaratu ditu: *Hodei artean kulunka* (1999), *Zergatik ez* (2003), *Ur aparretan* (2006), *Ez dena ere bada* (2009) eta *Galaxia bat sabelean* (2018). Helduentzako nobela bat ere idatzi du: *Ezpainak arrainak bezala* (2015).